

11 Urrats euskal hezkuntzaren alde

Euskal Autonomia Erkidegoan euskal hezkuntzaren alde eskuratu beharreko 11 lorpen, Hezkuntza Akordiotik eratorriak

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan lortutako Hezkuntza Akordioak abagune berri bat sortu du, hezkuntza sistema propiorantz trantsizioa abiatzeko oinarriak zehaztu baitira bertan. Euskal Hezkuntza Zerbitzua hezkuntza tradizio ezberdinen onena jaso eta Euskal Hezkuntza Sistema Publiko Burujabearen norabidean bidea egiteko oinarrizko kanpaleku gisa ulertzen dugu.

Euskal Hezkuntza Zerbitzua definitzeak aukera ematen du, hain zuzen ere, balio publikoa zertan datzan ondo definituta, hezkuntza tradizio euskaldun ezberdinen artean indarrak batzeko. Konkretuki, aukera ireki da eskola publikoaren bulkada berdinzalea eta Ikastolen mugimenduaren gaitasun autoeratzalea uztartzeko. Konfluentzia hori da bidea eredu publiko-komunitarioan antolatuko litzatekeen sistema publiko burujabea eraikitzen hasteko.

Aitortza egin nahi diogu eskola publikoaren komunitateari, administrazioaren inbertsio ezaren ondoriozko baldintza kaskarretan herrigintzan egindako lanagatik, euskara zabalteko egindako ahaleginagatik eta klase eta jatorriagatiko segregazioa, zeina gizarte gisa dugun arazo handietakoa den, eztabaida publikoaren erdigunean jartzeagatik. Aitortza egin nahi diegu Ikastolei ere, kultur transmisioan eta euskararen irakaskuntzan administrazio publikoa egiteko gai izan ez denari eutsi diotelako. Ikastolen sistema gai izan da nazio ikuspegia bere hezkuntza jardueran bermatzeko.

Hezkuntza Akordioak abiatu behar duen trantsizioaren lehen fase honek sistemaren deszentralizazioa ekarri behar du, Ikastolen antolaketa eredu komunitarioa oinarri hartuz.

Ekarri behar du aukera berdintasuna eta hezkuntza eskubi-deen bermea, eta horretarako eskola publikoak ardatza izan behar du. Eta ekarri behar du, baita ere, jauzi bat euskalduntzean, laikotasunean, inklusioan eta eraldaketa pedagogikoan. Momentua da, baita ere, herri proiektuak ehuntzeko, herriz herri ikastetxe ezberdinen arteko elkarlana eraikiz.

Eztabaida honetan, nahiz mendebaldeko hiru herrialdeetan ari garen, nazio ikuspegiz jokatu behar dugu, gaur hiru herrialdeetan ematen diren urratsak eraikuntza nazionalaren parte izan daitezen, eta gaur posible ez diren urratsak bihar posible izan daitezen. Garaia da, baita ere, burujabetza politikoa aldarrikatzeko: Euskal Herriak trantsizio honetan bidea egiteko kompetentzia eskusiboak behar ditu, hezkuntzan ere bai.

Aukera handi baten aurrean gaude eta, aukera handi guztiek bezala, honek ere baditu arriskuak. Arrisku behinena litzateke egungo sistema duala betiketzea. Trantsizioa, izango bada, eraikiko diren indar harremanen arabera izango da. Bermea hezkuntza komunitatea izango da neurri handian. Ezker subiranistaren ardura izango da bidea urratzea, arriskuak neutralizatzen saiatzeaz batera.

Horregatik, berretsi nahi dugu EH Bilduk bere esku dagoen guztia egingo duela aukera hau baliatu dadin, euskal hezkuntzaren aro berri bat ireki dadin. Hurrengo hilabeteetako erronka izango da lege on bat onartzea, Hezkuntza Akordioaren espiritua eta letra jasoko duena, eta Hezkuntza Akordioaren beraren garapen egoki bat egitea. Asko dago jokoan eta ezker subiranistak bere onena emango du herri honen eraikuntzan lehen mailako garrantzia duen erronka honetan.

Honako hauek dira, EH Bilduren ustez, Hezkuntza Akordiotik eratortzen diren urrats esanguratsuenak, trantsizioaren lehenengo fasean eskuratu beharreko hamaika lorpenak. Hamaika urrats hauek, mendebaldeko hiru lurraldeetan, euskal hezkuntzaren aro berri batean kokatzen gaituztelakoan gaude. Urrats hauek ziurtatu eta egonkortzea da, hain zuzen ere, datozen hilabeteetako erronka.

Euskal Hezkuntza Zerbitzuari dagokionez

- 1.** Kontzertazio unibertsalarekin bukatu, diru publikoa jasotzeko bete beharreko baldintzak ondo zehaztuz eta berauek betearazteko mekanismoak ezarriz.
- 2.** Doakotasun erreala bermatu, horretarako kontrol mekanismoak sortuz.
- 3.** Euskara ardatz duen eredu orokortura jauzia eman, euskal kulturaren transmisioan sakonduz.
- 4.** Sexu segregazioarekin bukatu eta laikotasuna bermatu.

Eskola publikoa sendotzeari dagokionez

- 5.** Klase eta jatorriगतiko segregazioari aurre egiteko tresna eraginkorrak martxan jarri.
- 6.** Haurreskolak Partzuergoa doakoa eta unibertsala bilakatu.
- 7.** Eskola publikoaren azpiegiturak hobetzeko inbertsio ekonomiko handia egin.
- 8.** Eskola mapa berrantolatzeaz batera, eskola publikoaren perimetroa zabaldu.

Sistemaren eraldaketari dagokionez

- 9.** Eraldaketa pedagogikoa bultzatu, horretarako beharrezko baldintzak sortuz (lan-baldintzak hobetu, irakasleak formatu, baliabide metodologikoak eskaini eta abar).
- 10.** Ikastetxeen autonomia sustatu, hezkuntza proiektuak indartzeko baldintzak sortuz (behin behinekotasunarekin bukatu, burokrazia gutxitu, zuzendaritza taldeak ahaldundu, figura hezitzaile berriak martxan jarri eta abar).
- 11.** Herri eta auzoetan ikastetxe ezberdinen arteko kooperazioa artikulatu, hezkuntza formalari zein eskolaz kanpoko jarduerari dagokionez. Horretarako, Udal Hezkuntza Kontseiluak antolatu.